

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2020-05-15 OSTIRALA / 729. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



AIXETU,  
BAINA ARGI!

inne

# Gerora kontatzeko esperientzia

Bizitzaren momentu garrantzitsu eta berezietako bat haur baten jaiotza da. Are bereziago bihurtzen da haurdunaldia eta erditzea pandemia eta konfinamendu baten erdian gertatzen denean. Belaunaldi berri baten hasiera da

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI A. Inar apirilaren 10ean jaio zen. Bederatzi egun aurreratu zen, eta konfinamenduaren laugarren astean jaiotzea erabaki zuen. Etxean egoteko "kanpoan" hobe egongo zela pentsatuko zuen agian. Jaione Loban etxarriarra eta Andoni Azanza altsasuarra dira bere gurasoak, eta arreba helduago bat du. Inarrek urte batzuk gehiago dituenean, zein egoeratan jaio zen kontatuko diote: "Honen berri izango du, baina bestela kontatuko diogu. Egoera honek arrastoa utziko digu".

Otsailaren bukaeran eta martxoaren hasieran hasi zen koronabirus hitza ohikoagoa egiten. Une horretan Loban haurdunaldiaren azken fasean zegoen, eta alarma-egoera ezarri zenean 34. astean zegoen. Erditzeko aste gutxi gelditzen zitzaizkion. "Hasieran, alarma-egoeraren aurretik, nahiko lasai nengoen, uste nuelako ez zela hainbesterako izango. Baina gero hasi zirenean esaten ospitaleak gainezka zeudela eta horrelako gauzak beldurtu nintzen. Gehienbat ez genekielako erditze garaian zer aurkituko genuen".

Pandemia iritsi aurretik ere Etxarri Aranazko Emakumeen Arretarako zerbitzuan egun mugituak izan ziren. Teresa Senar zerbitzuko emagina da: "Konturatzan hasi ginen zerbait gertatzen ari zela, eta orduan hasi ziren protokolo berriak jartzen. Egunero protokolo berri asko

jasotzen genituen, higiene neurriak eta abar. Hasiera gogorra izan zen; informazio asko heltzen zen".

Alarma-egoeraren aurretik konturatu ziren emakume asko joaten zirela zerbitzura, "eta ez genekien beharrezkoa ote zen etortzea". Izan ere, zerbitzua Etxarri Aranazko osasun etxean dago, eta kutsatzeko arriskua ekidin nahi zuten. Behin alarma-egoera eta konfinamendua ezarrita, haurdunaldietarako protokoloa martxan jarri zuten eta, salbuespenak salbuespen, zerbitzu hori bakarrik eskaintzen dute. "Baldin badago emakumeen bat arazoren bat duena, telefonoz hitz egin dezakegu, eta etortzea beharrezkoa ikusten badugu, etortzen da".

Protokoloa jarraituz, aste hauetan emaginaren eta haurdun dauden emakumeen arteko hitzorduak telefono bidez egin dituzte. "Oso zaila da. Emaginak

**"OSPITALEKO LANGILEEK ESATEN ZUTEN HORRETARAKO DAUDELA ETA OSO LASAI ZEUDELA"**

**"KONTATUKO DIOGU; EGOERA HONEK DENOI ARRASTOA UTZIKO DIGU"**

JAIONE LOBAN. AMA

emakumearen ondoan gaude, "laguntzen ditugu, tripa ukitzen diegu eta dena ongi doan ikusten dugu. Telefonoz deitzea ez da berdina. Baina horrela ari gara", azaldu du Senarrek. Lobanek esan duenez, emaginarekin zituen bisitak murriztu zituzten. "Komunikazioa telefonoz izan da. Azken aurreko hitzordua telefonoz izan nuen. Azkenekoan lagin bat hartzen dizute, eta horretara halabeharrez joan behar nintzen". Emakumeen Arretarako zerbitzura joatea ezinbestekoa denean, emakumei maskarak ematen dizkiete eta profesionalek ere maskarak eta eskularruak jantzen dituzte, Senarrek azaldu duenez.

## Haurdunaldia etxean

Ariketa fisikoa eta paseatzea gomendatzen diete haurdun dauden emakumei, eta "lehen" Emakumeen Arretarako zerbitzuan haurdunaldian laguntzeko talde "pila bat" zeudela esan du emaginak: "erditze-aurrekoak, edoskitzearena, erdiondokoak, haurdunendako soinketa...". Talde horiek alarma-egoerarekin eten ziren: "orain ez dugu ez". Hala ere, haurdunei Internet bidezko saioren baliabideen zerrenda bat eman diete etxean egin ahal izateko. Beraz, "etxetik ere" ariketa fisikoa egin dezaketela azaldu du Senarrek: "Mugitzea da garrantzitsua".

Haurdunaldiaren azken uneak konfinamenduan, etxetik atera gabe, pasa zituen Lobanek.



Jaione Loban etxarriarra eta Andoni Azanza altsasuarra, Inar jaioberriaren gurasoak. UTZITAKOIA

"Etxean beste haur bat geneukanez ez dugu asko pentsatu haurdun nengoela. Haurrarekin ahalik eta hoberen egoten saiatu gara, bera entretenitzen". Dena bertan behera gelditu aurretik, Loban fisioterapeuta batera eta pilates saioretara joaten zen, baita paseatzera ere, "eta gauza horiek ezin izan ditut egin". Baina etxean egiteko alternatibak bilatu ditu eta "ahal den moduan soinketa pixka bat egin dut eta

etxean paseoak eman ditut". Nahiko ondo moldatu direla esan du. Baina erditzeko garaiko "bel-dur hori" zeukan.

Hasieran alarma-egoeraren eta konfinamenduaren bi aste izan ziren, ondoren beste bi eta egoera luzatzen ari zen. Gainera, ez zirudien hobera egingo zuenik. Eta erditzeko garaia gerturatzen ari zen. "Emaginak esan zidan guztia normal funtzionatuko zuela". Hala ere, "ez genekien



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako egokia

5 9000



Beirak lehorrean jarrita



Isolamendu nukleo indartsua



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



bikotekidea sartzen utziko zuten", eta kutsatzeko beldurra ere zegoen. Hala ere, aurretik erditu zuten ezagun batzuk "egoera lasai zegoela eta oso ondo artatu behar nindutela" esan zioten.

#### Apirilak 10

Haurdunaldiaren 38. astean, data baino bederatzi egun lehenago, eguna iritsi zen. Aurretik hitz eginda zuten Lobanen gurasoak joango zirela haur helduena zaintzera, orduaren arabera. Iluntzean apurtu zen poltsa, eta, ondorioz, Lobanen ama haien etxera joan zen. Ospitalean egon ziren bi gauak bertan egon zen.

Ospitalera iritsi zirenean "harrera eta dena oso ondo" zegoela azaldu du Lobanek. "Sartu ginenean ez zegoen inor itxoiten eta

berehala hartu gintuzten. Hori bai, maskara jarri ziguten eta larrialdietako lehenengo harrean Andoni ez zuten sartzen utzi". Ondoren, haurra nola dagoen ikusteko beste gela batera sartzen dituzte emakumeak, "eta horretara ere ezin zen sartu". Dilatazio gelan, aldiz, elkarrekin egon ziren; "bioi tenperatura hartu ziguten eta maskarekin egon behar ginen". Erditzeke momentuan maskarekin egon behar bazen ere, "tokatzen zaizuenan"

### "PROTOKOLO BERRI ASKO JASOTZEN GENITUEN; INFORMAZIO ASKO HELTZEN ZEN"

kentzeko aukera ematen diete. Koronabirusak kutsatuta egon izan balitz, bikotekidearekin egoteko aukera izango zuela uste du Lobanek.

"Beraiek esaten zuten horretarako daudela eta oso lasai zedela. Ez genuen antzematen koronabirusa handik zegoenik ez ezer". Covid-19 birusarekin gaixo zeudenak beste solairu batean zedela azaldu du Lobanek, beraz, "ez geneukan inolako kontakturik". Gelan bakarrik jartzen saiatzen dira, eta "lasai-lasai" eta "oso ondo artatua" sentitu ziren. "Ospitalean oso ondo".

Goizean jaio zen Inar, gau osoa erditzen pasa ondoren. "Gau hori eta gero haurrarekin beste gau bat egon ginen". 24 orduetara etxera joaten utzi zieten. "Lehen

pediatraren hiru bisita ziren eta orain batekin dena ondo badago etxera bidaltzen zaituzte". Ospitalean beharrezkoa den baino denbora gehiago egotea ekidin nahi dute horrela, "kutsatzeko" arriskua gutxitu. Hasieran ospitalean aurkituko zuenaren beldur bazen ere, "han egonda" lasaitu zela esan du Lobanek. "Jendea lasai zegoen, maskarekin eta eskularruekin". Ospitaleko langileak lasai zedenez, haiek ere lasai egon direla esan du etxarriarrak: "Ez dugu kutsatzeko beldurrik izan".

Erditu ondoren ospitalean 24 ordu pasatzen dutenez orain, jaioberriari proba guztiak "lehenago" egiten dizkiotela azaldu du Lobanek. Beraz, erizainaren lehenengo bisita ere aurreratzen da. "Bi egunetara edo erizaina etxera etorri zen". Hamabost egunetara pediatrarengana joan behar dute, "normal".

Haurra izan ondoren, erdiondoa pasatu behar dute emakumeek. Teresa Senar emaginak telefonoz artatzen ari direla esan du. Edoskitzearekin ere arazoak izaten dituztela azaldu du, eta "larriritzen dela edo arazo bat" sortzen dela ikusten badute zerbitzura joateko esaten diete. "Egoera oso berezia da". Lobanek emaginarekin hitz egiteko aukera izan zuen, eta ondo bazegoen ez lioketela bisitarik egingo esan zion. "Puntuak jarri zizkidaten eta min pixka bat neukan. Gaizki ikusiz gero joateko aukera nuela esan zidan". Bestela, hilabete eta erdi inguruan deituko diotela berriz, "oraindik ez dakite nola funtzionatuko duten".

Deskonfinamendu prozesuaren "hurrengo urratsak" itxoiten ari dira Emakumeen arreta zerbitzuan. "Espero dugu pixkanaka hitzorduak eta ikastaroak, jende gutxiagoarekin bada ere, berriz martxan jartzea". Hala ere, duela egun batzuk "oraindik" ez zekiten ezer. "Espero dugu azkar pasatzea". Izan ere, beraiendako aste hauek "oso bereziak" izan dira.

#### Bisitarik ez

Ospitaleko gela bakoitzean guraso berriak bakarrik egotea

### "EMAKUMEREN BATEK ARAZORIK BADU, TELEFONOZ HITZ EGITEN DUGU"

TERESA SENAR. EMAGINA

saiatzen dira, eta, gainera, ezin dituzte "kanpoko" bisitak jaso. "Emaginek esan dute ikusten zituztela bai umeak eta bai amak lasaiago ikusten zituztela. Titia hobe hartzen zutela eta bisitak ez zedela nabaritzen zela". Haurra lehenengo egunetan ez bisitatzea eta ikustea, beraz, onurak ekar ditzake. "Ez dakit hemendik aurrera zerbait aldatuko duten, baina...".

Baina ospitaletik aterata ere, senideek eta lagunek ezin izan dute Inar ezagutu. "Nire gurasoak etxean zeuden haurrarekin, eta etorri ginenean ezagutu zuten. Umea ikusteko aukera izan zuten". Baina ezin izan zuten ez hartu ez ukitu. "Altsasuko aitona amonek laster ezagutuko dute". Bideo-deien bidez ezagutu dute Lobanen eta Azanzaren senideek eta gertukoek jaioberria.

Erditu ondoren lehenengo egunak etxean egotea "eskertu" ditu Lobanek, "errekuperatzeko". Hala ere, ez zieten gomendatu behar izan etxean gelditzea, "etxean gelditzera behartuak geundelako". Arreba zaharra "oso pozik dago, musu asko ematen dizkio", nahiz eta "ama, ez gaudenez denbora gehiegi berekin, ez dago hain pozik". Egun asko izan dira etxean berarekin, eta bat-batean haur txiki bat iritsi zen etxera. "Beste bat etorri da eta orain ez dut hainbeste denbora berarekin egoteko; baina ondo". Duela egun batzuk, haurren kaleratzea baimendu ondoren, lehenengo paseotxoak eman dituzte jaio berriarekin; "haize pixka bat hartzea esker-tzen da".

#### Etorkizuna

Ziurgabetasunarekin ikusten du etorkizuna Lobanek. "Bat-batean ateratzen gaituzte eta ez dakit honek berriz okertu egingo duen...". Haurdunaldiaren eta erditzearen momentu "bereziak" are bereziagoak izan direla esan du etxarriarrak, "honek arrastoa utziko digu". Inar konfinamenduan jaiotako haurren belaunaldikoa izango da, belaunaldi berezia.

Konfinamenduak baby-boom-a ekar dezakeela diote askok. Senarrek ez du horren argi ikusten: "Agian baziren emakumeak haur bat izatea pentsatzen ari zirenak eta atzera egin dute egoera ez delako hoberena. Niregatik ongi etorriak, baina oso zaila da".

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Balear uharteetako txikiena da Formentera. Irlaren punta bate-tik bestera 20 kilometroko luze-ra dago, eta 84 kilometro koadro-ko azalera du. 12.000 biztanle inguru ditu. Iristeko modu ba-karra Ibizan hartu behar den ferrya da. Uhartearen ezauga-rriangatik koronabirusak eragin gutxi izan du, eta aurreko aste-lehenean, maiatzaren 4an, lehen fasera pasa ziren. Irantzu Saez de Adana Collado eta Patxi Galan Morcillo altsasuarrak Pitiusa irletan bizi dira duela 15 urte.

**Zergatik Formentera?**

**Irantzu.** Oporretara etorri ginen, gustatu zitzaigun eta hemen bi-zitzen geratu ginen. Hasteko, ez du hainbeste euri egiten, eguz-kitsua da, eta hondartza dago. Hemengo giroa ere oso ona eta polita da. Azkenean, hemen ge-ratu ginen, lanean hasi ginen, denbora pasatzen joan da eta 15 urte ondoren hemen jarraitzen dugu.

**Patxi.** Oso leku desberdina da. **Nolakoa da bizitza Formenteran?**

**P.** Neguan oso lasaia izaten da. Udan aldatzen da oso turistikoa delako.

**I.** Guk urte osoan lan egiten dugu, astelehenetik ostiralera, baina uda denboraldian lan egiten du-tenek ez dute astelehena, igandea edo zer egun den desberdintzen. Azkenean, egun guztiak ia ber-dinak dira. Nire ustez desber-dintasun handiena da Altsasun edo Sakanan lanetik ateratzen zarenean taberna batera joaten zarela edo lagunekin elkartzan zarela eta hemen hondartzara joaten garela. Orduan, badirudi beti oporretan gaudela. Baina ez. Hangozuhaitzen edo mendien falta sumatzen dugu.

**Zein izan da koronabirusaren egoe-ra?**

**P.** Formenteran kasu gutxi izan dira. Sei edo zazpi gaixo egon dira. Hemengo sentsazioa da ez dela ezer gertatzen. Giro arraroa da. Hemen ez dago ospitalerik, kasu larri bat egon zen, eta Ibi-zako ospitalera eraman zuten. Beraz, hemen ez zegoen arrisku sentsaziorik.

**Uharte bat denez kontrolatzea lor-tu zuten, ezta?**

**I.** Konfinamendua jarri eta hu-rrengo astelehenean portua itxi zuten, eta bakarrik kamioietako eta janaria ekartzeko txalupak etor daitezke. Goizean beste txa-lupa bat etortzen da hemen lan egiten duen Ibizako jendearen-



Irantzu Saez de Adana Collado eta Patxi Galan Morcillo altsasuarrak Formentera irlan bizi dira. UTZITAKOA

# "Formentera turismoaz bizi da, gogorra izango da"

## IRANTZU SAEZ DE ADANA COLLADO ETA PATXI GALAN MORCILLO

Formenteraren ezaugarriak direla eta aurreko astean deskonfinamenduaren lehen fasera pasa zen. Igandeetan hurrengo asteko arauak jasotzen dituztela azaldu dute

dako eta arratsaldean itzultzen da Ibizara. Egunean bakarrik hiru txalupa ibiltzen dira. Guri ez digute hemendik ateratzen uzten. Lan egitera bakarrik atera zaitezke.

**Beraz, nahiz eta kasu gutxi egon konfinamendua bete behar izan duzue. Nola eraman duzue?**

**I.** Ni pisu batean bizi naiz eta terraza eta balkoi handi bat daukat, orduan, ez zitzaidan hain itogarria irudititu.

**P.** Ni itsasoaren ondoan bizi naiz, 200 bat metrotara, eta konfinamendua oso gustura pasa dut. Itsasoari begira, baratza landatzen, musika sortzen... normalean egiten ez ditudan gauzak egin ditut. Denbora aprobetxatu dut. Momenturen batean buruari bueltak eman dizkiot, baina orokorrean oso gustura egon naiz. Pixka bat motza egin zait. Hila-bete bat gehiagorekin disko bat kaleratuko nukeen.

**Jendeak konfinamendua errespetatzen al zuen?**

**I.** Konfinamendua egon denean, bai. Baina lehen fasean sartu ginenean, gainera, lan egiten dudana lekuan kontrolatu behar izan dut, nire sentipena izan da jendea etxean egoteaz nazkatuta zegoela eta ospatzera atera dela. Lehenengo bi egunetan neurri-gabekeria izan zen. Terrazetan eta kalean jende asko zegoen, eta orokorrean urrunketa soziala ez

zen mantentzen. Orain lasaitu da. Guretako nahasmen handia da. Bi egun 0 fasean egon ginen, aurreko astean lehen fasera pasatu ginen eta zuek lehen fasean hasi zaretenean guri pribilegio batzuk kendu dizkigute. Aurreko astean kalera nahi genuen bezala ateratzeko aukera genuen, distantzia mantenduz eta neurriak hartuz, baina ordutegirik gabe; orain zuena sartu digute. Paseoak gehienez kilometro bateko distantziara egin behar ditugu. Orduan, zer arautuko duten zain egoten gara. Bigarren fasean sartuko gara eta ez daki-gu nolakoa izango den ere. Nahasmen sentsazio hori daukagu, eta jendeak dio nazkatuta dagoela. Gu saiatzen gara betiko lagunekin ateratzen eta distantziak mantentzen.

**P.** Jendea kokoteraino dago. Aste bat baino gehiago daramagu kutsa-turik gabe. Jendea gutxi gorabehe-ra bizitza normala egiten ari da.

**Hierro, Gomera eta Graciosa Kanariar uharteek hasieratik eskatu zuten konfinamendua hain zorrotza ez izatea uharteen ezaugarriengatik. Formenteran ere eskatu zuten?**

**I.** Uste dut Formenterako presi-denteak ez zuela eskatu. Kanariar irlek bai eskatu zutela. Baina nik uste hemen antzeko egoeran geundenez lehen fasera pasatzea erabaki zutela.

**Nola aldatu zaizue bizitza?**

**I.** Nire ustez aldaketa izan da orain bizitza pixka bat lasaia gora dela. Lehengo bizitzarekin alderatuta, lana, gero haurraren eskolaz kanpokoak, gaur gauza bat eta bihar beste bat... Kontu-ratzen ez zaren martxa batean sartzen zara. Orduan, momentu hau izan da gelditzeko eta kontu-ratzeko orain lasaia gora bizi naizela. Lan egiten jarraitzen dut, baina beste erritmo bat da-ramat dena. Arratsaldean ez dugu presarik leku batetik bes-tera joateko. Konturatu gara ere hemen bizi garenok uda ez du-gula guztiz bizitzen jende asko dagoelako, eta aurten pentsatzen ari gara irla guretzat izango dugula. Hasiara batean ez daki-gu turista asko etorriko diren, beraz, aurten bizi garen lekua guretzat izango da. Ez dakit, Formentera turismoaz bizi de-lako. Nik uste saiatuko direla edozein modutan jendea etor dadin. Gero agian gaixotasuna-ren beste agerraldi bat ekarriko du. Baina hori irailean izango litzateke, uda pasata.

**P.** Luxu bat da irla guretzako izatea. Eta konfinamenduan home school izan da, egun guztia ari- ketak egiten. Gauza on asko eka- rri ditu: natura oso polita dago. **Formenterako jarduera ekonomiko nagusia turismoa da, zein da egoe- ra?**

**P.** Jendea oso gaizki pasatzen ari da. Jende asko lanik eta diru sarrerarik gabe dago. Diru sar- rera nagusia turismoa da, ez dago gehiago. Irantzuk eta biok lana daukagu udaletxean fun- tzionarioak garelako. Zortea dugu. Baina jendea oso egoera larrian dago. Gainera, Formentera oso garestia da; etxeak eta supermer- katuak garestiak dira. Itxoiten ari dira ea noiz jarri ahal den martxan turismoa dirua sartze- ko. Bestela drama bat izango da.

**I.** Agian jendeak hilabete batzuk edo negura arte irauten du... baina hurrengo udara arte itxoi- tea ezinezkoa da. Badago jendea irlatik ospa egitean pentsatzen ari dena.

**Lehen fasean tabernak ireki di- tuzte?**

**I.** Herrietako taberna batzuk ireki dituzte. Lan egiteko aukera ematen dieten terrazak zituzte- nak. Badaude taberna asko ter- rrazarik gabe eta txiringitoek ez dute irekitzeko baimenik. Hote- lak ezta ere. Ez daude hainbeste taberna irekita.

**P.** Tradizionalenak ireki dituzte. Baina azpiegitura turistikoa momentuz itxita dago. Garbitzen eta denboraldia hasten denerako prestatzen ari dira. Istorio hau nola doan itxoiten ari dira.

**Astelehenean bigarren fasera pa- sako zarete, eta gehiago irekitzea aurreikusten da. Nola ikusten duzue?**

**I.** Ez dakit nola ikusten dudan. Oraindik ez dute esan bigarren fasea nolakoa izango den. Orain arte terrazak bakarrik irekitzen utzi dituzte eta bigarren fasean agian barruko zonaldeak ireki- tzeko aukera dute. Baina ez da- kigu ezer. Hirugarren fasera arte ezin gara Ibizara joan. Orain arte aritu garen bezala, igandeetan Formenterako jende guztia he- mengo irratia entzuten egoten gara eta bertan presidentek arauak esaten ditu. Galderak bidaltzeko aukera ematen digu- te eta horrela astelehenean ba- dakigu gutxi gorabehera nola atera gaitzkeen.

**P.** Esaterako, hondartzara pasea- tzeraz joan gaitzke, baina ezin dugu ez eguzkia hartu ez baina- tu ere. Bakarrik federatuek dute



Formentera irlaren ikuspegia hegazkinetik. UTZITAKOIA



Patxi eta Irantzu Formenterako hondartza batean. UTZITAKOIA



Lagunekin elkartu dira egun hauetan. UTZITAKOIA

bainatzeko aukera; kirol igeri- ketarako bainatu zaitzke. **Nola bizi izan dituzue hemendik iristen ziren albisteak?**

**I.** Askotan pentsatu izan dut, zortea izan dugula hemen bizi-

**"ALDAKETA NABARMENENA IZAN DA ORAIN BIZITZA PIXKA BAT LASAIAGOA DA"**

tzeagatik ez gaudelako bitxo horren eraginpean. Batzuetan beldurrarekin ere ikusi ditut, gehien bat hasieran. Entzuten genuen Altsasu inguruan kasu- ren bat bazegoela eta gurasoak han daudenez, pixka bat larritu ginen. Baina honekin bizitzen ikasi beharko dugu.

**P.** Familiarekin kontaktua izan dugu eta zer moduz zeuden gal- detzen genien. Ondo erantzuten zuten, azkenean, lasai geratu gara. Dirudienez, gutxi gora-

behera pasatu da, eta, momentuz, aurrera doaz.

**Aste Santuko oporrak eta maiatze- ko zubia pasatu dira, bisitak izatea espero zenuten?**

**I.** Ez ditut bisita asko izaten, eta gehienak udan izaten dira. Irai- la aldera gurasoak etortzen dira. Altsasutik Formenterara etor- tzeko denborarekin etorri behar zara, ez da lau edo bost eguneta- rako etortzeko leku bat. Bidaia luzea da eta etortzen zarenez, hobe hamar edo hamabost egu- netarako etortzea. Gainera, nor- malean Aste Santuan eurria egi- ten du. Aurten izan ezik, ez du euririk egin eta etxean geunden. **Eta udan joango al diren esan di- zute?**

**I.** Momentuz ezetz esan dute. Agian hirugarren fasera iristen bagara edo. Hala ere, lehen fase- ra pasatuko ginela esan zutenean jende askok deitu zidan esanez etorriko zela... Esaten dutenez aurten estatu barruko turismoa egiten utziko dute eta agian eto- rriko dira. Hori begiratzen ari dira, izan ere, hemengo turistak italiarrak, frantziarrak eta ale- maniarrak izaten dira. Baina espainiar gutxi etortzen da.

**P.** Nik uste jendea etorriko dela. Aurreko egunean irakurri nuen bikote asko Caribera ezin direnez joan, Formenterara etortzea aurreikusten zutela. Lagunak ere etorriko direla uste dut. Gainera, toki guztietan dakite Formente- ran eta Hierron eta irla txikietan ez direla kasu asko egon eta se- guruago dela.

**Eta hilabete hauetan etortzea aurreikusita zenuten?**

**I.** Aurten ez. Aurreko urtean San Pedro egunean egon nintzen la- runbata zelako, baina aurten ez neukan pentsatuta. Azkenean, ezin. Bide batez, goraintziak Altsasuko jendeari.

**P.** Nik galdu nuen Aste Santuan egin behar nuen bidaia. Baina ahal dugunean joango naiz fa- milia ikustera.

**Konfinamendua musika egiteko aprobetxatu duzuela esan duzue, eta bideo bat ere. Nola sortu zen ideia?**

**P.** Konfinamendua hasi zenean jendea nahiko sentikor zegoen eta nik abesti bat egin nuen gitarrarekin. Abestia Whatsapp bidez mugitzen hasi nuen. Lagun musikariek esan zuten oso poli- ta zela eta jende askoren artean bideo bat egin genezakeela eta bideo hau atera da. Konfinamen- dutik gauza polit asko atera dira.

Jendea balkoietatik kantatzen... sormena piztu da eta artista asko sortu dira.

**I.** Patxi abestia grabatu zuen eta lagunei bidali zigun. Bakoitzak entzuten zuen eta batek gauza bat sartzen zuen eta besteak bes- te bat. Azkenean, bakoitzak bere etxean bere zatia grabatu zuen eta beste lagun batek muntaia egin zuen.

**Patxi, abesti asko sortu dituzu. Zer egingo duzu haiekin?**

**P.** Ez dakit. Musika niretzat egin dut, nire etxean bakarrik. Mu- sikariak hemen turismo denbo- raldia hasten denean aritzen dira lanean, eta orduan aprobetxatu dut orain gelditzera behartuta gaudela gauzak egiteko. Hilabe- te bat gehiago izanez gero agian disko bat egingo genukeen. Mo- mentuz oraindik musikariak lan egiten ari dira, agian aprobetxa- tu dezaket pixka bat gehiago.

**I.** Baina lagunak kalera ateratzen hasi dira, eta ez daude hainbes- te etxean. Gauzak pixka bat al- datu dira.

**Nola ikusten duzue etorkizuna?**

**I.** Nik gaizki ikusten dut esan dugunarengatik. Hemen ez dau- kagu industriarik, turismoaz bakarrik bizi gara. Eta orduan, uda hau ahal den moduan pasa- tuko da. Baina hurrengo negua gogorra izango da. Jende askok hemendik alde egingo du. Edo ez daki agian denon artean bes- te gauza bat pentsatu beharko dugu, zerbait egitea, irla hau beste modu batera mugitzeko. Baina zaila ikusten dut. Nire ustez gogorra izan behar da. Orokorrean hemengo jendeak lehengo egoerara itzuli nahi du. Aurten geldiune bat egingo du- tela esaten dute, baina datorren urtean aurreko bezalakoa izatea nahi dute. Aurreko urteko erri- moa berreskuratuta nahi dute.

**P.** Orain gauzak aldatzeko auke- ra dugu. Baina, ez dut uste egin- go dugunik. Gaztetan esaten genuen etorkizunik ez zegoela, eta azkenean arrazoia genuen. Gauza asko aldatu behar ditugu. Lehen geneukan erritmo horre- kin ezin da bizi, eta flipatu egiten dut mundu osoa gelditu duelako. Izugarria iruditzen zait. Ez da herri bat edo herrialde bat, mun- du ia osoa izan da. Ikusi dugu posiblea dela erritmoa jaitsi eta lasaiago joatea. Baina nik uste ahaztuko dugula eta aurreko egoerara itzuliko garela. Jendeak lehengo normaltasunera itzuli nahi du.

# Lanean, merkataritza eta turismoa onbideratzeko

Sakanako merkataritza eta turismo sektoreetako ordezkariak COVID-19 krisi mahaia osatu dute. Adostasunez eta koordinatuki arituko dira eta informazioa elkarrekin partekatuko dute

## SAKANA

Bideo-bilera. Ezin bestela izan. Horrela sortu zuten Sakanako merkataritza eta turismo sektoreetako ordezkariak COVID-19 krisi mahaia hilaren 7an. Mahaiak behin behinekoa izateko bokazioa du, koronabirusak eragindako pandemiari aurre egiteko sortu dute. Sakanako merkataritza eta turismo mahaiaren helburuak izanen dira: irekiera fasea ahalik eta modu ordenatuenean egiten laguntzea, eragile guztien ziurgabetasuna gutxitzea, udalekin eta beste eragileekin koordinatzea, informazioa partekatzea eta bideratzea (segurtasun eta higie protokoloak, neurriak, dirulaguntzak...) eta ekarpenak jasotzea.

Sakanako Garapen Agentziako turismo eta merkataritza teknikari Paki Urbitarte Cabrerak azaldu digunez, "alarma-egoerak Sakanako sozio-ekonomian eragin handia izan du eta izaten jarraituko du, COVID19aren ondorioz epe luzerako krisi garaia datorkigulako". Urbitartek ziurtatu digunez, "turismo eta merkataritza sektoreetan eragina bereziki gogorra izaten ari da, turismo sektoreko enpresak alarma-egoeraren hasieratik itxita baitaude, eta merkataritza establezimendu txikien kasuan lehendik ere zailtasunak bazituzten, hainbat dinamika azkartu eta larritzea ekarri baitu".

Teknikariak aitortu digu sektoreko profesionalen eta enpresen artean "irekiera eta deseskalatze prozesuan ziurgabetasun handia" dagoela. "Hainbat iturrietatik jasotzen ari gara informazioa eta ezjakintasun horren aurrean denok elkarlanean hasteko momentu aproposa izan daiteke", azaldu digu Urbitartek. Eta gogorarazi du udalen eskumena direla hainbat gaietan aplikatu beharreko neurriak, esaterako, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen irekiera afo-



Erosketak egin ondoren etxerako bidean.

roak zehaztea, turismo baliabi-deak egoera berrira moldatu eta neurriak hartzea, eta abar.

Bidelagun Turismo elkarteko, Sakanako Dendari eta Ostalarien elkarteko, Arbizuko eta Etxarriko udaletako eta Sakanako Garapen Agentziako ordezkariak izan ziren bileran. Gainontzeko udalek ezin izan zuten parte hartu.

## 2018ko datuak

- **Establezimenduak:** 483.
- **Merkataritzakoak:** 364, %75,36.
- **Ostalaritzakoak:** 119, % 24,64.
- **Haietan lanean:** 882.
- **Merkataritzakoetan:** 1,6 langile.
- **Ostalaritzakoetan:** 2,5 langile.

Iturria: 2018ko Sakanako Merkataritza lkerketa txostena.

## 2018ko txosteneko proposamenak

- Arloko teknikaria, aholkularitza eta arretarako leihatila bakarra, sektorearen eta administrazioaren arteko komunikazio kanalak.
- Tokiko kontsumo arduratsuen inguruko sentsibilizazioa.
- Lehiakortasuna handitzeko gaitzea.
- Merkataritza eskaintza ohitura berrietara egokitzea.
- Berrikuntza (salmenta zirkuitu laburra, kalitatez ziurtapenak...).
- Sinergiak, lankidetzeta eta asoziazionismoa sustatzea.
- Ekintzailatza eta belaunaldien arteko erreleboan laguntzea.

Iturria: 2018ko Sakanako Merkataritza lkerketa txostena.



Plazaolako bide berdea. Ezkerreko aldean legoke karabana gunerako sarrera.

## Autokarabanendako gunea eginen da bide berdearen ondoan

Udalak Cederna-Garalurren dirulaguntza jaso du. 8 edo 10 ibilgailuendako tokia izanen du. Lanak, irailean

### IRURTZUN

Plazaolak, tren modura lehen, txirrindulari gisa orain, bisitariak erakartzen ditu Irurtzune- ra. Trenbidea zena bide berdea bilakatu da eta pausoak ematen ari da Andoain eta Iruñea lotzeko (Sarasa arteko bidea egina dago). Gainera, Plazaola bide berdea bi bizikleta sareren zati da. Batetik, Baiona, Donostia eta Iruñea lotuko dituen Ederbidea eta, bestetik, Europa iparraldea eta hegoaldea isuri atlantikotik lotzen duen Eurovelo 1 bizikleta ibilbidea. Hori gutxi ez, eta Sakanako Garapen Agentziak aurreikusia du ibarra zeharkatzen zuen garai bateko Donejakue bidea berreskuratzea.

Hori guztia kontuan izanik, Irurtzungo Udalak egoki jo zuen bestelako bidaiari mota baten dako azpiegiturak sortzea eta autokarabanendako gunea egitea. Cederna-Garalurrek 2014-2020 Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren dirulaguntzaren laugarren deialdian Irurtzungo Udalaren proiektua onartu du. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu digunez, "8 edo 10 autokarabanendako tokia izanen du, ur beltzak jasotzeko aukera, bizikletak garbitzeko tokia, iturria eta atsedenerako gunea".


Irurtzungo beilatokiaren atzean dagoen larrearen goiko aldean, bide berdeari ondo-ondoan dagoen eremuan eginen da autokarabanendako eremua. Lan horrekin garai batean hondakindegia izandako espazio bat ere berreskuratuko da. Autokarabanenda-

ko eremuak beilatokiaren eskuin aldean izanen du sarrera. Larrazak ziurtatu digunez, "orain lanekin hastea ez du zentzurik". Beraz, iraila erdialdean hasiko dira eta otsailerako despedituta egon beharko dute. Lanek 71.779 euroko aurrekontua dute eta Cederna-Garalurrek 46.785,23 euroko dirulaguntza eman dio udalari. Cederna-Garalurren dirulaguntza horiek Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren landa-garapenerako funtsen finantziazioa dute.

Bitartean, bide berdeko lanak despedituta egon beharko lukete. Zehazki, martxoaren 20rako lanen egiaztatzea egina egon behar luke. Baina pandemiak azkeneko lanak atzeratu ditu. Alkateak argitu digunez, "tunelean argindarra jartzea falta da oraindik eta ez dakigu Turismo Departamentuak noiz jarriko duen mar-txan".

### Hiru kontratazio

Udalak aurtengo aurrekontua onartzerakoan guztira 16 pertsona kontratatuko zituela aurreikusia zuen. Joan zen ostiralean hasi ziren lanean Irurtzungo Udalak zerbitzu anitzetan aritzeko kontratatutako hiru pertsonak. Larrazak jakinarazi digunez, beste bi pertsona kontratatuko dituzte urte akaberara arte. Haien egitekoa orain arte udaleko langileek egiten zituzten parke, hiri-altzari eta bestelako garbiketara eta desinfekzio lanak egitea izanen da. Igerilekutarako kontratazioak ere eginen dira.



## Bi hilabetetan 185 langabe gehiago

Guztira 1.078 pertsona daude izena emanda enplegu bulegoan. 2018ko otsailaz geroztik Sakanako langabeen kopurua beti milaren azpitik egon da, kopuru txikiena joan den urteko garagarrian izan zen, 800. Ordutik goraka egin du langabeziak

### Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazi duenez, apirila akaberan 1.078 sakandar langabeziaren zeuden, martxoan baino 112 gehiago. Pandemiagatik alarma-egoera martxoaren 15ean ezarri zen, eta hilabete horretan langabeziaren zifra handitu zuten sakandarrak 73 izan ziren. Beraz, azken bi hilabeteetan lanik gabe gelditu diren sakandarrak 185 dira. Urtea 887 langaberekin hasi genuen eta apirilko datuarekin konparatuz gero 191 langabe gehiago dira, baina, esan bezala, gehienak, azken bi hilabeteetan enplegu bulegora izena matera joan direnak.

Generoari erreparatuta, 63 emakumezkoak eta 49 gizonezkoak eman zuten izena lana bilatzeko apirilean. Langabe sakandarren % 59,83 (645) emakumezkoak ziren eta % 40,17 (433) emakumezkoak. Adinari erreparatuz

gero, erdia, % 50,37 45 urte edo gehiago dituztenak ziren (543, aurreko hilabeteen baino 44 gehiago). 25 eta 44 urte artean dituzten langabeak % 39,05 ziren (421, 53 gehiago) eta, azkenik, 25 urtez azpiko langabeak % 10,58 ziren (114, 15 gehiago).

Sektoreei dagokienez, langabeen % 65,77 zerbitzuen arloan lan egin nahiko luke (709, aurreko hilabeteen baino 89 gehiago). Industriako lan eskaintza onartuko luketenak % 21,89 ziren (236, 14 gehiago). Eraikuntzan lan egiteko prest zeudenak % 3,99 ziren (43, 3 gehiago). Lehen sektorean aritzeko prest zeuden % 1,79 (19, aurreko hilabeteen ko-

**APIRILA AKABERAN  
1.078 SAKANDAR  
LANGABEZIAN  
ZEUDEN, MARTXOAN  
BAINO 112 GEHIAGO**

puru bera). Azkenik, aurreko lanpostuan aritu nahi dutenak langabeen % 6,59 izan ziren apirilean (71, 6 gehiago).

Ibarreko langabeziaren % 45,55 Altsasuk du (491), Irurtzunen % 13,17 (142), Olatzagutiak % 9,28 (100) eta Etxarri Aranatzek % 8,81 (95). Sakana Nafarroako populazioaren % 3,09 izanik herrialdeko langabeziaren % 2,7 dugu.

### Kontratazioa

Sakanan aurtengo lehen lau hilekoan 2.244 kontratu sinatu dira, joan den urtean garai berean baino 389 gutxiago. Apirilari dagokionez, sinatutako kontratuak 191 izan ziren, aurreko hilabeteen baino 379 gutxiago eta joan den urtean baino 441 gutxiago. Kontratuen % 60,21 gizonezkoen sinadura zuten (115) eta % 39,79 emakumezkoenak (76). Kontratuen % 90,05 aldi baterako ziren (172).

## Atakondoako patioan umeendako parkea egitearen alde

Parte-hartze aurrekontuetan aurkeztutako lau proiektuen artean parkearenak 178 boz lortu ditu

### Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Irurtzongo Udalak parte-hartze aurrekontuetarako zehaztutako 35.000 euroko diru-saila zertara bideratuko den erabaki dute irurtzundarrek herri-konsultan. Herritarrek lau proiektuen artean aukeratu beharra zuten, eta gehienek, 178 irurtzundarrek, Atakondoako patioan umeendako parkea egitearen aldeko hautua egin dute. Hortaz, Udalak parkea egitera bideratuko du diru-saila.



Atakondoako ikastetxea. ARTXIBOA

Irurtzongo Parte-hartze Aurrekontuen taldeak azaroan abiarazi zuen Aurrekontu Parte Hartzaileen 10. edizioa, eta 2019an jasotako proposamen eta iradokizunetan oinarrituz, lau proiektu aurkeztu zituen: Irurtzun atseginago egiteko plana (oinezkoendako Irurtzun atseginagoa egitea, horretarako loreontzi, zutoi, eskudel eta zenbait elementu apaingarri jarri, hainbat mural apaingarri margotu...); barraketako esparrua asfaltatu edo hormigoitu; Atakondoako patioan umeendako parkea egitea; eta Toilekanak edo txakurrendako guneak egokitzea.

Irurtzundarrek euren botoa emateko martxoaren 15era arteko epea zuten, euren boza ohiko tokietan utziz edo preparairurtzun@gmail.com posta-elektro-nikora bidaliz, eta guztira 441 boza jaso dira. Horretaz gain, 73 proposamen egin dituzte irurtzundarrek, batzuek auzo eta kaleetan dauden arazo txikien berri ematen dutenak.

### Parkearen aldeko 178 boz

Irurtzundar gehienak (178), Atakondoako patioan umeendako parkea egitearen alde azaldu dira. Irurtzun atseginago egiteko planak 93 boz lortu ditu, barraketako esparrua asfaltatu edo hormigoitzeko proposamenak 84 boz eta Toilekan edo txakurrendako guneak egiteko proposamenak 74 boz.

Irurtzongo Aurrekontu Parte-hartzaileen taldeak azaldu duenez, ez dakite zehatz-mehatz Atakondoako patioan umeendako parkea egiteko lanak 2020. urtean egingo diren edo 2021. urtera atzeratuko diren. "Bizitzari ari garen pandemiaren ondorioak direla eta, ez dakigu horrek 2020. urteko aurrekontuetako diru sarreretan eta gastuetan izango duen eragina, eta momentuz ezin da jakin lan hauek aurten edo datorren urtean egingo diren" azaldu dute.

**Matrikula epea zabalik**  
**Maiatzaren 25etik Ekainaren 5 arte**

**www.kattuka.com**  
haur eskola

**info@kattuka.com**



San Pedroko haritza tximistaren ondorioz puskatuta.

# Zeru-lurrak batu zituen haritzak

Tximistak jo eta su hartu ondoren, igandean, 20:00ak aldera, San Pedro ermita pareko zuhaitzaren hiru adar nagusiak lurrera erori ziren. Suhiltzaileek beraien lana 23:00etan despeditu zuten. Udalaren asmoa da zutik gelditu den zatia horrela uztea

## Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Tximista batek jo eta erre egin du San Pedro egunean txistulariei itzala egiten zien haritza. Makina bat zortzikoren, kanturen, parrandaren lekuko mutua joan da. Baita pareko ermitan egindako hainbat ezkontzena ere. Tokiarekiko estimazioak ekarri zuen hildako altsasuar bat baino gehiagoren errautsak haren inguruan zabaltzea, San Pedro zelaiko plazan, altsasuarren egun handiaren festaren erdigunean. Horregatik, zuhaitza ikusteko, makina bat altsasuarrek San Pedro zelaiko bidea hartu zuten.

Tximista eta San Pedro. Altsasuar asko aspaldiko kontu batez gogoratu ziren domekan. Horren berri ederki daki Felix Goikoetxea Lopezek. San Pedro egunean, urtero, hutsik egin gabe, makina bat altsasuarrek galdetzen baitiote zenbat urte betetzen diren

tximistaren pasadizoaz. 1986ko San Pedro egunean izan zen, duela 34 urte. Goikoetxea akademian trebatzen ari zen udaltzain izateko. Garaiko alkate Emilio Boulandier Maizak eskatu zuen udaltzain berriek praktikak San Pedro egunean egitea. Beraz, lan eguna Goikoetxearendako.

Goikoetxea ermita ondoan egon zen lanean. Lanaldia 17:00etan bukatu zuen eta lagunekin festa ospatzeko presa zuen. Momentu berean, bat-batean ekaitz handia lehertu zen, "tximistak, euria eta dena". Goikoetxea ermitatik atera eta alkateari lanerako era-

**"BATZUETAN TXIMISTAK ENBOR BARRUTIK BIDAIATZEN DU, SUSTRAIETARAINO, ERREKUNTZA HASIZ"**

bili zuen besokoa bueltatu zion. Udalak ardoa banatzen duen tokiaren ondoan zeuden. "Hala-ko batean soinu handi bat entzun zen. Eta bat-batean osasun etxeko ohatila batean nengoen. Ez nekien zer gertatu zen".

Jendeak kontatuta daki zer pasa zitzaion: "nigandik aparte zegoen haritz batean tximistak jo, lurrean sartu, atera, altxatu ninduen eta hegan egin nuen ez dakit zenbat metro eta 'a plomo' erori nintzen. Zapatilarik gabe. Sufre usain handia zegoen. Ni hori-horia nengoen". Goikoetxeak gogoratu du "zorte handia" izan zuela: "Gurutze Gorria beti San Pedro egunean han egoten zen (egun DYA). Eta nire ondoan sendagile bat zegoen, Luis De la Vega altsasuarra. Eskerrak! Bestela, han geratuko nintzen. Bihotz-masajea egin zidan eta ambulanzian osasun etxera eraman



Tximistak zuhaitza jo ondoren Felix Goikoetxea Lopez jo zuen.

ninduten". Erietxean "bat-batean esnatu nintzen. Nire arreba han zegoen oihuka. Begiak zabaldu nituen eta, aiba! Zer gertatzen da? Ez nekien zer gertatu zen". Tximistak Goikoetxea bete-bete harrapatu zuen. "Nire kide Jose Antonio Vilasi zerbait eman zion. Eta uste dut Boulandierri ere".

Gertaeraren testigantza da "tente eta seko" dagoen haritz hila. Udalak garagarriaren 29ro haren ondoan zerbitzatzen die altsasuarrei ardoa eta mostoa. Bizitakoa bizi ondoren, Goikoetxeak dioenez, "hiltzeko modurik hoberena da: konturatu gabe!"

## Txondorren pare

Nafarroako AEMETeko ordezkari Peio Oria Iriartek azaldu digunez, "joan den astean Burundan izan genituen ekaitzak bai astelehenean bai asteburuan. Asteburuko ekaitzek sortutako tximistak Bakaiku eta Ergoiena

**"TXONDORRA BEZALA. HAIZE UFADAK JOTZEAK EDO TEMPERATURA IGOTZEAK SUA BIZITZEN DUTE"**

aldean izan ziren. Astelehenekoak, 4koak, berriz, hiru tximista ermitatik oso-oso gertu zeuden. Gainera, joan den astelehenean ekaitza nahiko lehorra izan zen. Ziur aski tximista hori duela aste bat baino gehiago eroriko zela".

Oriak azaldu digunez, "tximista bat zuhaitz baten gainean erortzen denean, batzuetan sua sortzen da. Euriaren eta hezetan baldintzen arabera, euri zaparrada handiak badaude, normalena da sua bere kabuz itzaltzea". San Pedrokoa tximista latente edo gorra zen. Hau da, "batzuetan tximistak zuhaitzen enbor barrutik bidaiatzen du eta sustraietara heltzen da. Hor hasten da errekontza. Oxigeno falta badago errekontza poliki-poliki egiten da. Batzuetan egun osoak irauten ditu. Kanpotik ez da ezer ikusten, baina zuhaitza barrutik, eta sustraiak, oso bero daude. Erretzen doaz, pixkanaka. Eta barneko suak segitzen badu atera daiteke kanpora eta batzuetan baso suteak eragiten ditu".

Nafarroako Gobernuko Sakana eta Mendialdearako menditekniakaria Inigo Villanueva Zeberio tximista gorra txondorrenekin parekatu du: "ba-





Haritza erretzen ari zen momentua. UTZITAKOA



500 m-ra tximista batek utzitako arrastoa.



San Pedro egunean haritza jendez inguratuta egoten zen beti. ARTXIBOA

rruan egosi, erre, ke pixka batekin, batzuetan ia-ia nabaritzen ez dena. Haize ufadak etorritakoan, edo tenperaturak igotzerakoan, sua bizitzen dute eta sortzen diren garrak ikus ditzakegu. Baina ikusi den bezala, garrekin, hori arraroxeago da". Villanuevari haritzan garrak ikustea arraro egin zitzaion: "barneko izerdia-eta mugituta dute eta zuhaitza heze samarra izaten da. Hori piztu ahal izateko energia edo bero gehiago eman behar zaio. Guk uste dugu barrutik zerbait usteltzen hasia zegoela. Horrela, lehorxeago egonda, errazago pizten da". Oriak gogoratu du "duela bi urte Valentzian sute oso-oso handi bat izan zen eta uste da halako tximista gor baten oinarria zeukala".

Villanuevak gaztigatu duenez, tximistek zuhaitzetan jotzea "ezin dugu esan normala denik, baina guk uste baino maizago gertatzen dira". Tximistak erakartzen dituztenak koskak, puntak, gailurrak, zuhaitz altuak direla gogorarazi dute. Oriak azaldu duenez, tximista batzuk zuhaitzaren kanpoko aldetik bidaiatzen dute eta beste batzuk barrutik. Horren zergatia ez dakitela aitortu du Villanuevak: "baina zuhaitza beraren egoera, urtaroa, negu partean geldirik dute izerdia, sano daudeneke hezetasuna dute barnean eta horiei gehiago kostatzen zaie su hartzea eta tximistarekin lotutako aldagaiak izan diren".

### Guztiak ez dira berdinak

Oriak tximistak nola sortzen diren azaldu digu: "ekaitz hodei barruan oso mugimendu bertikal gogorak eta aire bortitza izaten dira. Horiek ur tanten karga elektrikoa bereizten dute: batzuek gora joaten dira eta besteak gelditzen dira hodeiaren beheko aldean. Azkenean, bi nukleo berezituta dituzu, bata karga positiboarekin eta, bestea, negatiboarekin. Eta alde handia dagoenean sortzen da tximista. Eta karga garraioa alde batetik bestera".

AEMETeko ordezkariak argitu digunez, tximista gehienak hodeien barruan gertatzen dira. Baina, San Pedrokoa bezala, hodeietatik lurrera doazanak ere badaude. Hodeitik lurrera jaisten diren artean daude positiboak eta negatiboak. "Positiboek karga elektriko positiboa hodei gailurretik lurrera eramaten dute eta negatiboek karga elektriko negatiboa hodei erditik lurrera eramaten dute. Maizago izaten dira tximista negatiboak. Baina, normalean, positiboek intentsitate bortitzeak dira. Hemen denetarik dugu. 4ko tximista positiboa zen eta oso intentsua". Ostotsa edo trumoi zer den ere argitu digu Oriak: "karga bereizte horretan kanalak sortzen dira eta aireak oso bortitz, oso azkar bidaiatzen du kanal horietan eta horrek sortzen du halako soina".

Oriak aholkatu digunez, "ekaitz arriskua bada egoera edota meteorolo-

logia-abisua eman bada, mendira edo kirola egitera ateratzea saihestu behar da. Baina mendi erdian harrapatzen bazaitu, lehenik muiño, punta, koxka edo gailurretik jaitsi". Aholku gehiago ere eman ditu: "gauza metalikoez aldentu eta ez ikutu; ura dagoen tokietatik urrundu; korrikarikezegin, horrek elektrizitatea erakar lezakeelako. Eta tximistak hurbil baldin badaude, adituek esaten dutena da tuttuipiko edo kukubiko jartzeko, oinak elkartuta, besoak belauen gainean gurutzatuta, burua besoen artean sartuta".

## Sakanako hiztegia

Sakanan tximistari eta trumoiari esateko modu desberdinak daude. JL Erdoziaren 'Sakanako Hiztegi Dialektologikoan' opatu dugu bilduma hau.

### Tximista nola esaten da

- **lñuzture** Irañeta, Uharte.
- **lñezture** Sakana erdialdea.
- **Oinezura** Urdiain.
- **Inazturia** Olatzagutia.

### Trumoi nola esaten da

- **Ortots** Irañeta, Uharte.
- **Ostots** Sakana erdialdea.
- **Jostai** Urdiain.

### Etorkizunaz

Tximistak jotako haritzean adar txiki bat gelditu da. Hark aurre-eraren duen jakitea "zaila" dela uste du Villanuevak. "Haritzak zuhaitz sendoak dira eta erre zaion zatia da pixka bat hila dagoena. Bere funtzioa da gehiago da euskarriarena. Bizirik duen zatia, normalean enbor batean, kanpo aldean dagoen zatia da, adaburu, hosto eta zati horiekin batera. Horren zati txikia geldituta, ezin dugu esan hilabete batera, edo bostera, baina normalena da hiltzera kondenatuta egotea jada. Agian gaintzen du, baina harrituko nintzateke. Sorpresa handia litzateke".

Tximistak jotako zuhaitzak 17 metro inguruko altuera zuen eta 1,6 metro inguruko diametroa. Villanuevak azaldu duenez, "eremu komunala da eta zuhaitzak ere komunalak dira eta hori udalaren erabakiaren baitan gelditzen da. Normalean mendi teknikariek edo basozainekin hitz egiten da: behar bada epaitzetarako edo toki bereziren batzuetan bankuren bat egiteko erabili izan dute, tainaren arabera". Astelehenean bertan udaleko langile batek eroritako adarrak egurretarako markatu zituen.

Javier Ollo Martinez alkateak azaldu digunez, "zutik geratu den enbor zatia horrela mantenduko dugu". Beti ere, segurtasun kontuengatik, zati horren egurra nola dagoen aztertu

beharko dute teknikariek. "Beti ere, arriskurik ez badago, zeren inguruan jendea pilatuko da", Villanueva zutik gelditu den haritz zatia dagoen bezala mantentzearen aldekoa da: "Altsasu erdiaren pasealekua da eremu hori. Gainera, heldu den hilabete bukaeran hor egiten den festa dugu. Edozein baso eremurik duen balioaz aparte, paisaia edo soziokulturala den balio berezia du. Hor zutik gelditzea uste dut bideragarria dela, polita".

Mendi teknikariak azaldu duenez, zutik gelditzen den haritz zatia bera bertan xahutzen edo kontsumitzen joan da. Gaztigatu duenez, "zuhaitz hilen inguruan fauna bat dago, badira intsektu batzuk, hurbiltzen dira okil eta beste txori batzuk... Dena prozesu bat da, dinamikoa".

San Pedro egunean dantzarako plazaren ertzean zegoen haritza eta ospakizunean txistulariei itzala ematen zien. Funtzio bera egiteko, beste haritz bat noiz landatu beharko litzatekeen galdetuta, Villanuevak esan digunez, "izerdia geldirik dutenean" izan behar duela, hau da, "neguan, abendutik martxora bitartean. Baina esan behar da ere haritz gazte bat landatuz gero, bizpahiru urte dituenak, hiruzpalau edo bost txistulariri itzala emateko oraindik urte batzuk beharko litzuzkeela. Bitartean txistulariak beste haritzen itzalean babestu beharko dira".



Imanol Arregi aitortu du egun Xotak, azken urteetako erronkarik handienetakoa duela. UTZITAKOA

# "Egoera latz honetan ezingo nuke taldea utzi"

**IMANOL ARREGI SARASA** OSASUNA MAGNA XOTAKO ENTRENATZAILEA

**ARETO FUTBOLA** Zazpi jokalarik utziko dute Xota eta talde berria sortzea dagokio orain Imanol Arregi teknikariari. Azken urteetako erronkarik latzenetakoa du aurretik

**Maiden Betelu Ganboa** IRURTZUN

Etxean harrapatu dugu Osasuna Magna Xotako entrenatzailea. "Duela 5 urte egoera honetan egongo ginela esango baligute, flipatu egingo genuke, baina hau da egokitu zaiguna..." dio lehen mailako areto futboleko entrenatzaile onenaren saria sarritan jaso duen irurtzundarrak. Xotaren egoera latza da 7 jokalarik taldea utzi eta gero, baina nahiz eta eskaintza garrantzitsuak izan, etxeko taldean jarraituko duela argi du Imanolek eta erronka berria prestatzen dabil.

**ATEZAIN IZATETIK ENTRENATZAILE IZATERA**

**1978. urtean sortu zuen Xota Irurtzungo gazte kuadrilla batek. 1984/1985 denboraldian sartu zinen taldean eta 2000/2001 denboraldira arte Xotako atezaina izan zinen. Zein da boteprontoan etortzen zai- zuten lehen oroitzapena?**

Oroitzapen asko dira. 15 urte nituela soilik entrenatzen uzten zidaten, 16 urte izan arte ezin baitzen jokatu. Taldean sartzea sekulakoa izan zen niretzat. Beti dut gogoan sentsazio hori. Eta jokalaria izan nintzen urte luze

horietako oroitzapen asko ditut: taldekideak, taldeak, pabilioiak, txapelketak, maila igoerak...

**Herriko taldea izatetik liga federatua aritzera pasa zen Xota. 1992/1993 denboraldian Zilarrezko Mailara igo zen eta 1997/1998 denboraldian Ohorezko Mailara, maila gorenera. Hura guztia bizi izan zenuen, taldeko atezaina zinela.**

Zure herriko taldearekin txikitzen Etxarriko, Irurtzungo eta Txantreako txapelketetan aritzetik federatutako ligetan hasia pauso ederra izan zen. Hortik aurrera, taldea sendotu zen eta 2. mai-

lara edo Zilarrezko Mailara igozteko handia izan zen. Gogor borrokatu genuen orduan, Ohorezko Mailara igozteko lortu arte. Egun, 1. mailan urte gehien jarraian daramatzen hiru talderen artean dago Xota, eta hori sekulakoa da ni bezalako irurtzundar batendako.

**2000/2001 urtean zure azken denboraldia jokatu zenuen MRA Xota Nafarroan, eta 2001/2002 denboraldian taldeko entrenatzaile lanetan hasi zinen, zuzenean 1. mailan.** Xotako atezaina nintzela harrobiko nesken talde bat entrenatzen nuen. Gustuko nuen, eta entrenatzaile titulua lortzeko azterketa guztiak gainditu nituen. Atezain izateari utzi nionean nire helburua Xotako harrobiko gazte mailako taldea entrenatzea zen, baina 2000/2001 denboraldia konplexua izan zen Xotarendako. 1. mailatik ez jaisteko borrokan ibili ginen, eta egoerari buelta emateko, kluba izen handiko hiruzpalau entrenatzaileekin jarri zen harremanetan. Inork ez zuen etorri nahi izan, eta esperientzia handirik ez zuen entrenatzaile bat fitxatu beharrean, etxeko norbaiten alde egitea erabaki zuen klubak. Horrela, 2001/2002an talde nagusia entrenatzea proposatu zidaten. Errespetu handiz onartu nuen, arduraz handia baitzen, apustu itzela. Lehen urte hori maitasun handiz gogoratzen dut. Gainera, ongi joan zen; lan ikusgarria egin genuen eta Xota, historian lehendabizikoz, Ligako titulua erabakitzekeko play-offetarako eta Koparako sailkatu zen, sailkapenean bosgarrenak izan eta gero. Nire lehen urtean ligan horren ongi bukatzea ederki gozatu nuen.

**XOTA HANDIENEN ARTEAN**

**Taldearen ardura hartu zenuenetik Xotaren urrezko garaiak iritsi ziren. 2009/2010 denboraldian Ligako txapeldunordeak izan zineten, 2017an Errege Kopako txapeldunordeak eta 2018/2019 denboraldian Ligan hirugarrenak izan zineten. Azken urteotan Ligako titulua erabakitzekeko play-offetarako eta Koparako sailkatu zarete, ia zuen aurrekontua hirukoizten duten taldeekin batera. Movistar, El Pozo, Barcelona eta talde ahaltsu horiek estimatuko zaituztete, ez al da hala?** Esango nuke areto futboleko munduan mugitzen diren talde eta zale gehienek estimatzen gaituztela. Nafarroan, zer esanik ez, eta baita Estatuan barna ere.

Estatuan nolabait esatearren "guztionez taldea" da Xota. Irurtzundik sortutako talde bat gara, goian dauden taldeak baino askoz ere bitarteko gutxiago ditugu eta beti hor gaude, goian. Politza da, baina bitarteko gehiago izanez gero talde erraldoi horien kontra desabantaila gutxiagorekin aritzeko aukera izango genukeenaren arantza sartua duzu. Baina hau da dagoena. Politza da hemendik kanpokoek gure taldea umila dela aitortzea, eta aldi berean 1. mailako lehen zortzi taldeen artean kokatzea.

**Luxuzko zaletuak dituzue, marea berdea. Talde ahaltsu askok ez dute zuena bezalako afiziorik.**

Lehen Mailako afiziorik onenak bat dugu, eta, horretaz gain, errespetu handiena duena. 2.300-2.400 bazkide ditugu eta ez dira gehiago Anaitasunak aforogehiago ez duelako. Berdin du zein talde etortzen den, bete egiten da Anaita. Pistara atera eta zaletuak animatzen ikustea oso polita da, eskertzekoa.

**ENTRENATZAILERIK ONENA**

**Gizon umila zara, profesional handia. Areto Futboleko 1. Mailako Ligako entrenatzaile onenaren saria jaso duzu, entrenatzaile onenaren Ramon Cobo saria, Nafarroako entrenatzaile onenaren saria... ba al dakizu zehatz-mehatz zenbat sari dituzun?** Nafarroako Federazioak emandako 2 sari ditut, Nafarroako Gobernuak emandakoa, 2 Ramon Cobo sari, Entrenatzaileen Elkarteke 2 sari eta Liga Nazionalako sari bat. Norbaitek egin duzun lana balorean jartzea beti eskertzekoa da, hori jende guztiari gustatzen zaio. Baina areto futbola talde kirola da eta sari indibidualak taldeak egiten duenari baldintzatuta daude beti. Horregatik, sari hauek guztiendako dira: taldearendako, kluba-

**"SARIAK, SARTZEN DITUGUN ORDU GUZTIEN AITORTZA DIRA ETA ILUSIOZ JASOTZEN DIRA"**

**"EZ DUT BATERE ARGI PLAY-OFFAK JOKATUKO OTE DIREN. ARETO FUTBOLA EZ DA FUTBOLA"**

rendako eta urte luze hauetan taldetik pasa diren pertsona guztiendako. Bestetik, jendeak uste du gu ordu eta erdiz goazela entrenatzena eta kitto, baina ordu askoz ere gehiago ematen ditugu etxean pabilioian baino, bideoak prestatzen, estrategiak zehazten, jokalarien jarraipena egiten... Pribilegiatuak gara, gustatzen zaiguna egiten dugu eta ordaindu egiten digute, baina ordu asko daude atzean, eta sariak ordu horien aitortza dira. Eskertzekoa da, ilusioz jasotzen dituzu.

### COVID-19

**Urte luze hauetan denetarik egogorak bizi izango zenituen, baina COVID-19 birusak sortutakoa bezalako gutxi...**

Oso egoera arraroa da hau, normaltasunetik kanpo dagoena, guztiok jokoz kanpo harrapatu gaituena eta jende askorengan eragina duena. Horrenbeste denbora etxean egon beharra, hori ez dugu sekulan bizi, eta euren senitartekoak galdu direnendako oso gogorra izaten ari da. Hildakoen datuez horrelako hoztasunarekin hitz egitea izugarria da. Egoera gogorra da, inpotentzia sortzen duena. Birus honi buruz, ezer gutxi dakigu, osasun arduradunek ere ez dakite noraino luzatuko den, nola eragingo duen... Ea lehenbailehen pasatzen den.

**Osasuna Magna Xotako jokalariek nola ari dira entrenatzen?**

Taktikoki ezin dugu ezer egin; ezin dira taldekako entrenamenduak egin. Miguel Hernandez prestatzaile fisikoak mantenu plan bat prestatu die jokalariei, eta bi egunez behin bideokonferentzia bidez ariketak egiten dituzte, fisikoa eta indarra mantentzeko. Jokalariek orain kalera atera daitezke ariketa egitera, bakoitza bere kabuz. Espainiako Futbol Federazioak aurreko astean esan zuen 1. Mailako Areto Futboleko ligako titulua erabakitzeke play-offak jokatu direla, baina nik ez dut batere argi.

### PLAY-OFFAK

**Zergatik ez duzu argi play-offak jokatu direnik?**

Ez dut batere argi. Uste dut uztailearen bukaerara arte ia ezinezkoa izango dela play-offak jokatzeko, eta areto futboleko jokalariek ekainean despeditzen zaie kontratua. Ikusteko dago hori nola konponduko duten. Ez

dakit Xotak taldean noiz entrenatu ahal izango duen.

**Espainiako Futbol Federazioak ez zuen zehaztu zein datetan eta non jokatu diren play-offak, eta egutegia aurrera doa.**

Play-off azkarra izango dela esan dute, baina ez dute datarik jarri. Zintzoki, denboraldi honi bukaera egokia ematea zaila da, baina ez dakit play-offak jokatu direla ziurtatu daitekeen daukagun egoera ikusita eta datak, bete beharreko protokoloak eta beste zehaztu gabe.

**Xotak Nafarroa Arena eskaini du play-offak jokatzeko. Zer deritoxo?**

Jokatuz gero, publikorik gabe izango da, eta kantxa efektuak printzipioz ez du eraginik izango. Dena den, etxean jokatzeko beti da polita. Zehaztutako faseak kontuan hartuz, Nafarroa 1. fasean dago, baina Valdepeñas, El Pozo eta Barcelona taldeetako probintziak oraindik 0 fasean daude. Guztiak maila berean egoteko eta play-offak jokatu ahal izateko uztailearen bukaera edo abuztuaren geundeko. Eta areto futbola ez da futbola. Futbolak dirutza izugarria eta interes asko mugitzen ditu, eta guk horrekin ez dugu zerikusirik. Federazio bereberan gaude baina gure kirola guztiz ezberdina da, eta ez dakit zein punturaino luzatu dezakegun play-offaren kontu hau. Gertatzen dena gertatuta, aurtengo denboraldia izorrratu da, ez du konponbide errazik, eta ez litzaidake gustatuko aurtengoa konpontzen

saiatzeagatik datorren denboraldia izorrratzea.

**DATORREN DENBORALDIAZ Baja oso garrantzitsuak dituzue. Egungo taldeko 7 jokalariek garrantzitsuenetatik 4 badoaz -Araça, Rafa Usin, Dani Saldise eta Martel-, eta haiekin batera Mario eta Llamas. Tatono Arregi presidenteak esan du berriro ere taldeari "bere burua berrasmatzea" dagokiola eta lanean zaudetela "ilusioa piztuko duen taldea" sortzeko.**

Egoera oso konplexuan gaude. Alde ekonomikoari begiratuta, orain arteko helburu bereberieutsiko dion taldea berregitea oso zaila da. Uste dut 2008ko krisi ekonomikoan gertatutakoa etorriko dela, taldeen arteko ezberdintasunak oraindik ere handiagoak izango direla. Azken 10 urteetan jarraian play-offetarako eta Koparako sailkatu gara, eta taldea utziko duten jokalariek garrantzitsu horiek azken bospasei urteetan Xotan egon dira. Hortaz, jokalariek horiek ordezkatzeko zaila izanen da. Gehienak oso gazte etorri ziren, eta lehen mailako jokalariek hemen egin ziren. Gure klubak dituen baliabide ekonomikoak kontuan hartuta, ezinezkoa da euren mailari gerturatzen diren jokalariek fitxatzea. Hortaz, berriro ere hasi eta apustua egin beharrean gaude, baina azken urteetako egoerarik zailenean gaudela onartu beharra dago, taldea berregiteko bitarteko gutxiago ditugulako eta taldeko jokalariek garrantzitsuenak ordez-

katu behar ditugulako. Lan oso zaila dugu.

**Hau harrobiko jokalarientzako aukera bat izan daiteke?**

Harrobian ditugun jokalariek oso gazteak dira oraindik. 2. B mailan edo 1. mailan jokatzeko ez da gauza bera, alde izugarria da. Hortaz, pazientzia izan beharra dugu. Ion Cerviñok eta Iñigo Fernandezek 1. mailan debutatu dute, baina gauza bat da taldeko 9. edo 10. jokalariek moduan sartzea, eta beste gauza bat da 1. mailan astero 20-25 minutu jokatzeko. Hitz potoloak dira horiek.

**Hortaz, datorren denboraldia trantsiziokoa izango da? Edo zuen izaerari jarraiki, Xota berdea da eta beti irabaztera aterako da?**

Gure taldearen nortasuna berbera izango da baina, jakina, helburuak ezin dira berdinak izan. Hori ez litzateke errealista izango. Bestetik, etorriko diren jokalariek gehienak hasiberriak dira, eta 1. mailan 7-8 urte darrazaten jokalariekin alderatzea ez da justua. Orain berriro taldea osatu beharra dugu, eta hori izaten da zailena. Horretarako behar dugu, taldea sortzeko, jokalariek konfiantza har dezaten eta gutxi-ka taldea hezten joan dadin.

**Beste talde batzuk entrenatzeko eskaintza tentagarriak izan dituzue, baina etxeko klubean jarraitzeko apustua egin izan duzu beti.**

Kluba egoera latzean dago, eta orain ezingo nintzateke joan. Nik ezingo nuke taldea egoera gogor honetan utzi. Hemen egon beharra dut, plantilla berritzen saiatu, ahalik eta tarte motzenez Xota talde onenaren artean borrokan egoteko. Berdea naiz, hau da nire taldea, izorrratuta gaude eta hemen egon beharra dut, beste behin taldea aurrera atera ahal izateko, berriro ere lehiakorrik izan gaituzen.

**"HAU DA NIRE TALDEA ETA HEMEN EGON BEHARRA DUT, BESTE BEHIN ERE TALDEA AURRERA ATERATZEKO"**

**"EA BITARTEKO GUTXIREKIN TALDE LEHIAKOR BAT ATERATZEKO GAI GAREN"**

## Lagun Artea mailaz igo da

Nafarroako Futbol Federazioak bukatutzat eman du 2019/2020ko Preferente mailako denboraldia. Lagun Artea 2.a zen sailkapenean, igoera postuetan, eta Federazioak erabaki du Lakuntzako taldea mailaz igoko dela eta hurrengo urtean Maila Autonomikoan jokatu duela. Bi urteetan bi igoera lortu ditu Lagun Artea- nek, eta ahal denean ospatuko dutela adierazi dute. Hala-ber, aurten ez da jaitzierarik egongo eta azken postuan zegoen Etxarri Aranatzek ez du maila galduko eta Preferente mailan jarraituko du.

### Beste talde batera joateko tentatziarik ez al duzu sekula izan?

Batzutan taldea uzteko puntuan egon naiz, baina pixka bat arrosa naiz; dirua baino, erronkek erakartzen naute. Argi dut nagoen tokian nagoela, nire taldeak, Xotak, irabazten duenean sentitzen dudana ez dudala inon sentituko. Behin, Xotatik ateratzekoan egon nintzen eta eskaintza oso onak izan ditut, baina gauza bat edo bestea zela, ez naiz atera. Eta orain, taldea izorrratuta dagoela, are gutxiago. Orain bertan nire tokia hemen dago; ikusiko dugu etorkizunean non dagoen. Bestetik, orain dugun erronka itzela da. Puntako jokalariek apenas esperientziarik ez duten jokalariekin ordezkatzeko ditugu, eta entrenatzaile naizen aldetik erronka handia da, eta hori gustoko dut. Sentsazio ezberdinak ditut; tristura, batetik, klubean hazi diren jokalariek badoazelako; bestetik, ziklo berri baten aurrean gaude, eta ea bitarteko gutxiagorekin talde lehiakor bat egiteko gai garen. Azken urteetan izan dugun erronkarik handienetakoa da hau, zalantzarik gabe.

**Roberto Martil kapitainak taldean jarraituko du.**

Berdea da bera ere. Ikusgarria da Irurtzen bezalako herri txiki batetik aurten 1. mailan Asier Llamas, Roberto Martil, Dani Saldise, Ion Cerviño, Txuma eta ni egon izana. Hori zeinen zaila den ez gara jabetzen. Kanpotik datozen gure taldekideak etxekoak



Imanol Arregi taldeari aginduak ematen, Dani Saldise alboan duela. XOTA

# Erantzunkidetasuna zaintza lanen banaketan

'Pertsona guztiek berdintasunez gozatu behar dute'. Familien, enpresen eta administrazioen artean erantzunkidetasuna egon behar da zaintzaren esparruak eragiten dituen alderdi guztiei erantzuteko

SAKANAKO

Bizitzak erdigunera. Pandemiaren erdian lelo hori du Nafarroako 20 tokiko erakundeetako Berdintasun Zerbitzuek gaur aurkeztuko duten kanpainak. Sustatzaileen artean Sakanako Mankomunitatea dago eta kanpainarekin batera zabalduko manifestua ibarreko Berdintasun Zerbitzuko kide diren 14 udalartara bidaliko da, hainbat konpromiso bere egin ditzaten.

Sakanako Mankomunitateko berdintasun teknikari Oihana Gallo San Romanek azaldu digunez, "Covid 19aren krisiak berriz ere agerian utzi du zaintza-krisi batean murgilduta gaudela eta bizitzak ez daudela erdigunean". Gaineratu duenez, "etxeko lanen eta zaintza lanen banaketak ez dira bidezkoak eta ez dago benetako erantzunkidetasunik. Pandemiak eragindako egoera berri honi, lehendik dauden eta ibilbide luzea duten genero desberdintasunak gehitzen zaizkio".

Koronabirusak eragindako alarma-egoerak "lanaren banaketa sexuala eta genero estereotipoak indartu ditu eta emakumezkoak dira, batez ere, haurrak, mendekotasuna duten pertsonak, adinekoak, gaixoak, zaintza emozionala, zaintzeaz arduratzen direnak. Funtsezko lanak dira gure jendarrea mantentzeko". 20 toki entitateetako Berdintasun Zerbitzuetatik argitu dutenez, kasuen % 75 baino gehiagotan emakumezkoek egiten dituzte zaintza lanak. Familietan lan horiek doan egiten dira. Baina Gallok gaztigatu duenez, ordainduta denean "lan baldintza kaxkarretan eta gizarte eta lan eskubide murriztekin" egiten dela. Aldi berean, eskatu du "kontuan hartzea produkzio lanen atzean zainketen eta erreproduzio lanaren makineria beharrezkoa dela, eta horrek ahalbidetzen duela egunero lan merkatuan sartzea".



Oihana Gallo San Roman teknikaria, zabalduko duten kartela aldamean duela. UTZITAKOIA

## "ZAINZAREKIN LOTUTAKO LANAK FUNTSEZKOAK DIRA BIZITZARI EUSTEKO, DENON ARDURA DIRA"

Funtsezkoa

Guztiagatik, 20 toki erakundeen kanpainak "feminizatu horien balioa handitzea" garrantzitsua dela dio. "Arlo publikoko eta osasuneko zaintza zerbitzuak, egoiztetako eta etxez etxeko zaintzaileak, garbiketara sektorea, supermerkatuetako langileak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza, etab. antzeko lanek erakutsi dute funtsezko esparruak direla 'bizitzek bizirik jarrai dezaten' funtsezko eta ezinbesteko premiak asetzeko".

Kanpaina sustatzen duten toki erakundeek diote krisiak "agerian utzi ditu batez ere emakumeen bizi baldintzak ez daudela bermatuta eta bizitzak lehentasuna izango duten eredu aldazari beharra dagoela". Horregatik, "pertsona guztien arteko erantzunkidetasunaren garrantzia" azpimarratu dute, "emakumeak

lanaldi bikoitz eta hirukoitzetan bizi ez daitezela, zainketaz eta etxeetako bizitzari eustez arduratuz. Lanaren banaketa sexuala hautsi behar da, eta ordaindu gabeko lanen banaketa justurantz aurrera egin, zereginak eta zaintzak modu eraginkorrean banatu". Hori lortzeko, beharrezko jo dituzte zerbitzu publiko unibertsalak eta zaintza premiei erantzuteko kalitatezko zerbitzuak, enpresetako kontziliazio-politikak eta familietako kideen artean erantzunkidetasuna. Bestela, "diskriminazioa areagotuko dela ondorioztatu dute". Ondorioz, "bizitza merezi duten bizitza duinak erdigunean jartzearen premia eta paradigma aldatzearen garrantzia" aldarrikatu dute, "horiek eta hauen jasangarritasunak lehentasuna izan dezaten". Horregatik guztiagatik, mugimendu feministak bere borroka, eskaera eta ekarpenetan egindako lana aitortu dute 20 toki entitateetako ordezkariak.

Udalek manifestua aztertzeaz, aparte, kanpaina jendartean zabalduko kartelak jarriko dira eta sare-sozialen bidez mezua zabalduko dute.

## Ur-kontagailuen irakurketari buruzko Mank-en oharra

Etxe barruan dauden kontagailuen irakurketa norberak egin behar du eta Ur Zerbitzuari jakinarazi

SAKANAKO

Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzua astelehenean hasi zen aurtengo bigarren hiruhileko ur kontsumoko irakurketak egiten. Halakoak Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian egiten ditu.

Hala ere, COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuak hainbat neurri hartu behar izan ditu. Horien artean dago zerbitzuko langileak etxe barrura sartu ezin izatea. Ho-

rreratik, Sakanako Mankomunitatek ur-kontagailua etxean duten zazpi herri horietako biztanleei eskaera egin die: norberaren ur kontsumoa apuntatu eta Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuari jakinaraztea. Jakinarazpen hori egiteko hiru modu daude: 948 464 867 telefonora hots egitea (4. luzapena), 663 399 732 telefonora whatsapp mezua bidaltzea edo ura@sakana-mank.eus e-posta helbidera mezua bidaltzea. Kontagailuan komaren aurretik dauden beltzeko zenbakiak dira eman behar direnak.

## Indarkeriagatik hiru emakumezko artatu dituzte

Genero-indarkeriaren biktimak diren 43 emakumezko artatu zituen Foruzaingoak apirilaren, haietako hiru Altsasun. "Larrialdiren bat gertatuz gero, polizia-jakinarazi 112 telefonoaren bidez". Urruntze agindua telefono-deien edo mezuen bidez gertatzen bada, horien erregistroa gordetzea gomendatu du, frogabide gisa balio dezan.



Martxoak 8ko manifestazioa. ARTXIBOIA

## Etxarri Aranazko Udalak hiru peoi kontratatuko ditu

Etxarri Aranazko Udalak, Nafar Lansareren laguntzaz, herriko hiru langabe kontratatuko deialdia egin du. Kontratuak lanaldi osorako izanen dira eta urte erdirako. Altsasuko enplegu bulegoan eman behar dute izena interesatuek maiatzaren 22ko 14:00ak baino lehen. Udalak kontuan izanen dituen kolektiboak dira: oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonak, edo %33 edo handiagoko desgaitasuna egiaztatzen dutenak, emakumezkoak, 45 urte edo gehiago duten gizonetzkoak, edo 30 eta 44 urte bitartean egon eta iraupen luzeko langabetuak direnak edota aurreko kolektiboen barruan ez dauden gainerako gizonetzkoak.

## Cederna-Garalurren 144.861 euro hiru proiektuendako

Nafarroako Mendialdeko gizarte eta ekonomia garapenean lagunduko duten proiektuak laguntzeko asmoz, Cederna-Garalurren elkartek 2014-2020 Tokiko Garapen Parte hartzailearen Estrategiaren dirulaguntzaren laugarren deialdian 17 proiektu onartu zituen apirilaren 6an. Irurtzango autokarabana gunerako 46.785,23 euro izanen dira, Bernoako galtzadarako 50.000 euro eta Etxarriko ekintzaile batek 48.075,95 euroko dirulaguntza jasoko du 160.000 euro inguruko inbertsioa egiteko. Bere asmoa da martxan den jarduerak bat dibertsifikatzea. Bisitariak hartzeko egokitzapenak egingen ditu eraikin batean.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Emergentzia egoeretako salbuespenezko planak

Bakardadean erlaxaturik, egunkari digitaletan arakaturik, koronabirusaren gaineko albisteei begiratu bat ematen. Hondoko musika jarrita, Anariren *Zure Aurrekari Penalak* diskoa ari da jotzen. Barne-barneraino sartzen den ahots grabe, sendo eta urratua, doinu erritmodunean *"bizi zaituen animalia izu hori zeru gorri baten pean mundua gurutzatzen / azazkalak, ilea eta beldurrak baino hazten ez zaizkizuna..."*

Berria egunkarian leitzen dut Jaurlaritzak mugatu egingen duela lehen fasea eta ez duela utziko udalerrri batetik bestera joaten, ezta hainbat jarduera burutzea ere. Alajaina! Horientzat ere berdin Bilbo ala Egin. Nafarroan ez da halakorik izanen, gaitz erdi! Beste egunkari batean, "Gobernuak 1.015 euro arte emanen dizkie hilean bizitzeko gutxieneko diru-sarrera bermatzeko milioi bat familia ahulenei". Anariren ahots gozoak *"animalia horrek bere bizkarrean idatzita daramatza / laztan ez harramazkaz itzalen izenak: gizon eta emakumeenak, leku eta egunenak..."*.

Nolanahi ere, hedabide guztietan nabarmena da estatuko agintarien arteko liskar politikoa. "Komunitate autonomoetako presidenteen iraultza 'irizpiderik' gabeko deseskaladagatik", Madriliko Gobernuaren gidaritzak autoritarioa eta zentralizazioa salatuz. Informazioa ematean, gardentasun falta handia da, aurpegirik eta izenik gabeko adituen taldearen izenean. Anariren ahots grabeak *"denak ederrez eta minez / izen horiek denek osatzen duten zerrenda / zuk kaltetuen zerrenda, zuk eta zeu ere, / behin geuk eraikitako ametsen eraiste neurtuak..."*.

Iparaldeko eta anglo-saxoiar herrialdeetan hiritarrak oso aintzat hartuta, hiritarren nahitako engaiamendua lortu dute; Estatuan, ordea, ordena publikoaren salbuespen egoera bihurtu dute, hiritarren etsipena eta zigorraren beldurra hedatuz. Bi eredu. Hala ere, udaberriko kimuak ernatzen hasiak diren bezala, hainbat eguneroko errutina berreskuratzen hasiak gara. Itxaropena da behar izanen duguna. Anariren ahots urratuak *"desertzio, desertuak, larrialdietako deiek denak banan-banan zure aurrekari penalak: / zeru gorriak, oreinak eta orfidalak gehiegi luzatzen diren salbuespen egoeretarako emergentziako planak / denak banan-banan, zure aurrekari penalak: intimoak, sexua, heriotza eta orfidalak; / gehiegi luzatu ziren salbuespen egoeretarako emergentziako planak..."*.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## GUTUNA

### Zorionak Boltio!

**JOXE ALDASORO JAUREGI**  
LAGUNEN IZENEAN

Berrogeita bost urte!  
Partidaren bigarren zatia.  
Zahartzea putada, are handiagoa alternatiba, ezta?  
Hogeit preso. Sentitu, pentsatu, egin. Pailazokeria dirudi baina indarrak ahotik ihes egiten digun garaia bizi dugu. Pentsamenduetatik ekintzara pasatzea izugarri kostatzen zaigu. Aginduak gure buruari baino ondokoari egozten denbora alferrik galtzen dugu. Horrelako sasoiaren ez da txarra dena utzi eta borrokara lotu denaren adibidea.

Ez dugu denok eskuzabaltasun bera.

Tira, ados, barkatu. Eman diezaiogun urtebetetzeari eskatzen duen poza, kolorea, alaitasuna. Egin dezagun topa osasunarengatik, askatasunarengatik. Ospa ditzagun familia, lagunak, bizitza. Bagara! Bagaude!

Dena den, zergatik da heroia "Dana eman behar jake maite dan askatasunari" idatzi zuena eta preso jarraitzen du bete duenak? Esan ziguten indarkeriak lausotzen, estaltzen, lurperatzen zuela gure hitzaren, gure arrazoiaren indarra. Orain, hitzaren eta arrazoi ahuldadeaz konturatzen gara: indarririk gabe ez dute deus ere balio.

Indarra da bai presoak etxeratze gako. Orain artekoa ez da nahikoa izan. Gehiago egin beharko dugu: ideia sinplea bai, gaur egun jendea mugiarazten omen duen horietakoa. Ea ba! Pertsona gehiago bildu, ate

gehiago jo, kale gehiago bete, lan gehiago antolatu.

Presoak kalera! Legeak ezartzen duena baino gehiago ordaintzen ari zaretelako ere bai. Boltio etxera, askatasunera. Ez delako justua, ez delako etikoa zuek preso jarraitzea.

Altxa kopa, altxa botila, altxa ukabila!

### Pello Mariñelarena: "Bizitzari kaña eman behar zaio"

**JUAN KRUZ ALDASORO ETA AMAIA ERDOZIA**

ETXARRI ARANAZKO SORTU

Bizitza lapurtu ziotenetik hogeita zazpi urte pasa direnean; Pellok hitzez, margolanez eta ekintzez utzi zigun ondareak sekulako gaurkotasuna dauka. Pellorentzat bizitza denboraren igarotzea baino zerbait gehiago zen. "Bizitzari kaña eman behar zaio", esaten zuen.

Gure komunitatea, gure herria, une oso gogorak bizitzen ari da. Osasun-larrialdiak, larrialdi honetatik eratoritzen diren ondorio ekonomiko eta sozialak, denoi interpelatzen gaituzte. Herria osatzen dugun sektore anitz guztietako herritarrok ezin dugu pentsatu konponbideak kanpotik etorriko direnik. Guk geuk hartu behar dugu egoera honetara ekarri gaituen eredu politiko, ekonomiko eta soziala erroitik aldatzen hasi beharraren kontzientzia. Gakoak: auzolana, ama lurrarekiko begirunea, ondasun komunalaren zaintza; elkar lagundu eta babesteko usadioa; arazo larrienari ere

sormenarekin eta ausardiarekin aurre egiteko adorea. Azken aste berezi hauetan balore guzti horiek azaleratu dira ere, miseria eta hondamendiaren erdian. Denon artean pentsatu beharko duguna da nola balore horiei tokia egin agertoki nagusitzeko halabeharrez gaur-gaurkoz nagusi diren beste balore batzuk lurperatu behar ditugula. Ondasun materialak pilatzeko jukutria, individualismoa, natura gure probetxu hutserako dagoen biltegi bezala ulertzea. Balore horiei eta balore horien atzetik dauden interes erraldoiei aurre egin beharrean gaude, borroka hori antolatu eta aurrera eramateko erronka dugu. Ahalguztidun sentitzen diren gutxi batzuen botere horri herri arduratsu eta antolatu batek sortzen duen botereak lehiatu behar dio etorkizuna.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**GK diseinu zerbitzua:**  
Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
Felix Alzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra

## ZORION AGURRAK



Jose Antonio eta Ginesa  
50 urte elkarrekin!  
Zorionak eta besarkada handi bat familia guztiaren partez!



## OBJEKTIBOTIK

## Borroka guztien plastikozko aztarnak

Itsasoa plastikoz beteta dagoela esaten dute. Izugarriko kutsadura. Itsusia eta arriskutsua. Sakanan itsasorik ez, baina plastikoa edonon aurki dezakegu, irakurle batek bidalitako argazkian argi ikusten den moduan.

Hemen aldarrikapen asko plastikozko pankartetan agertzen dira, edozer gauza gertatzen dela eta, plastikozko pankartez betetzen dira herriak. "Baina nork kentzen ditu ondoren? Edo aztikeriaz desagertzen al dira? Hego haizeak gogor jotzen duen egunetan, non bukatzen du plastiko guzti honek?" galdetzen dio bere buruari irakurleak. Zer egin dezakegu gure basoak plastikozko itsaso ez bihurtzeko?



UTZITAKOA

ZURE INFORMAZIOA  
HEMEN!

BELEIXE IRRATIA,  
GUAIXE ASTEKARIA  
ETA GUAIXE.EUS

BAZKIDE EGITEKO:  
GUAIXE.EUS/HARPIDETZA



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAERA

**Altsasun, asteburuetan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du.** Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

## LEHIAKETAK

**Etxarri Aranazko abesbatzaren 50. urteurrenaren logotipo lehiaketa:** Edonork parte har dezake. DIN A4 formatoan (ordenagailuz edo eskuz eginda), gehienez bi lan aurkez daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailaren 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnoan.

**Baiona Iruñea Maiatzaldiak:** Maiatz aldiriaz aipatu jardunaldietara testuak bidaltzeko epea zabaldu du, epea apirilaren 19ra artekoa da. Aurtengo Maiatzaldiaren lelo nagusia **BIZIMINAREN KOLOREAK** (Euskal Literaturan) da.

Prosaz: 2700 karaktere espazioekin gehienez. Poesiaz: 42 lerro gehienez. Maiatzek jasotako testuen zati aukeratuak argazki muntaketa bat eginen du Maiatzaldiaren egunetan proiektatzeko, bai Baionan, bai Iruñean ere. Testu osoak udazkeneko Maiatz aldiriaz argitaratu litezke.

## OHARRAK

**Egunean Behin jokora jolastu nahi?** Euskarazko galde-erantzunen jokoa da Egunean Behin, telefono mugikorreko aplikazioa. Egutero 10 galdera erantzun behar dira. Gainera, taldeak sortu daitezke eta ingurukoekin zure jakituria neurtu. Dagoeneko eginak dauden taldeetan sartzeko giltzak behar dira. Honako ibarrek taldeen giltzak: Sakana 2B2160, Lakuntza B C 97 D 3, B a k a i k u 1C2051, Urdingo Herria A253A9 Altsasu C5FD3D Ziordian CBBF8. Jokoa-aren lagarren denboraldia garilaren hasierara arte izanen da.

**Uharte Arakilgo egur epaiak:** Aurten egun epaiak hartzeko interesa dutenek hilaren 18ra arteko epea dute udaltxearen eskaera egiteko. Epai bakoitzagatik 35 euro ordaindu behar dira izena ematerakoan. Garagarzarroan eginen da epaien zozketa publikoa. Epaiak biltzeko epea garilaren 1etik azaroaren 1era arte izanen da.

**Elkartasun sareak:** koronabirusak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko elkartasun sareak eratu dira herrietan. Haien harremanetan jartzeko moduak dituzte hurrengoak: Irurtzun, udaltxeko bulego ordutegian 948 500 051 telefonoa, eta hortik kanpo 618 636 199. Etxarri Aranatz hots egin 673 319 557 edo 671 603 012 telefonoetara. Bakaikun 622 268 161 da markatu beharreko telefonoa eta botiketarako 948 563 450 edo Whatsapp bidez 657 702 178. Altsasun 640 044 424 telefonora hots egin edo altsasukogazte-sanbiada@gmail.com e-

postara idatzi daiteke. Lakuntzan 650 866 423 tfnoan edo lakuntzaelkartasunarea@gmail.com e-postan. Arakilen 948 500 101 – 622 297 961 tfnoetan eta info@arakil.net e-postan. Azkenik, Arbizon 675 894 913 tfnora deitu edo idatzi alkathea@arbizu.eus posta elektronikora.

**Urteurren aldiria:** Aurten Altsasuko Gazteria Zerbitzuak 25 urte bete-tzen ditu eta Intxosita-punta gazte guneak 10 urte. Urteurren ospatzeko aldiria sortuko dute, zerbitzaren historia memoria izanen dena. Baina, aldi berean, Gazteria Zerbitzuak etorkizuneko landu beharko dituen esku-hartze ildoan gaine-gogoeta egin nahi da. Aldizkarirako iritzi, artikulua, argazki edo ideiak eman nahi dutenek honako bideak erabili beharko dituzte: intxosita-punta@altsasu.net, gazteria@altsasu.net, emailletara idatziz, edo 608 617 778 - 948 564 785 telefonoetara deituz.

**Bakaikuko epaitzak:** Egur-lotea nahi duenak maiatzaren 15a baino lehen izena eman behar du Udaltxeko postontzian papera utziz, udala@bakaikuko.eus helbidera mezu bidaliz edo 948 562 509 – 681 181 308 telefonoetara deituz. Ordainketa lotea banatzeko orduan egin beharko da. Lotearen prezioa 20 euro. Bakaikuko Udala.


**Arakildar guztientzako yoga klaseak:** Arakilgo Udalak WhatsApp bidez 12 herrietako profiletan yoga bideoak zabaltzea erabaki du. Asteleheneta eta ostegunetan izaskun bideoa 18:30ean eta Argimulutakena asteartean eta ostiralean 10:30ean.

**Uharte Arakilgo festetako zapia:** Udalak herrian erroldatuta dauden eta joan den urtean jaio ziren umei festetan zapia banatuko die. Erroldatuta ez dauden familiek eta festetako ttattarra hartzeko interesa dutenek, garagartzaroren 5era arte eman dezakete izena info@uhartearakil.com e-posta helbidera idatziz.

com e-posta helbidera idatziz.

**Gazte Karnetaren 30. urteurren dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpeki Txartela oparitzen ari die.** Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte-mugikortasun programe-tarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpeki Txartela oparitan jaso nahi duenak [www.juventudnavarra.es/eu/hasiera](http://www.juventudnavarra.es/eu/hasiera) web gunearen bidez egin dezake eskaera.

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzetxearen eraikina zaharberitzeko proiektuan lagundu nahi duenak** ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote [www.iragarkilaburraak.es](http://www.iragarkilaburraak.es)



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskela@guaixe.eus](mailto:eskela@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



**DUELA 25 URTE...**
**Etxe hutsak eta herria husten**

Hiriberriarrek herrian bertan segitzeko etxebizitza eskuratzeko duten zailtasunez aritu zen Arakilgo korresponzala. Azaldu zuenez, Hiriberrin etxe eder askoak zeuden, baina haietan ez zela inor bizi. "Nahi baino gehiago dira". Herrian bizitzen segitu nahi zutenak etxe bat erosi ezinik zeuden, jabeek ez zutelako saldu nahi. Etxeak egin ahal izateko lursailak saltzeko traba bera zegoela ere gaineratu zuen. "Herriko gazte gehien-tsuenek gogoz kontra herria utzi behar izan dute".

## JAIOTZAK

- **Roaya Aboufaras Mesbahi**, apirilaren 26an Altsasun
- **Sara Jimenez Acacio**, maiatzaren 5ean Altsasun
- **Haitz Galarraga Lobo**, maiatzaren 5ean Etxarri Aranatz
- **Azucena Jimenez Carbonell**, maiatzaren 8an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



**Hemen eta online**  
iragarki laburra .eus



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Nerea Bakaikoa, Nerea ile-apaindegian. UTZITAKOIA

## "Bezeroak ile-apaindegira bueltatzeko gogoz zeuden"

COVID-19 birusak sortutako osasun krisia dela eta ia bi hilabete itxita egon ondoren, maiatzaren 7an ireki zituen ile-apaindegiko ateak Nerea Bakaikoa lakuntzarrak. Pozik dago, egoera berriari tamaina hartzen eta bezeroekin lan egiteagatik kontentu

### Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

#### 1 Zer moduz lanerako buelta?

Ongi, lanera bueltatzeko irrikitan nengoen.

**2** Alarma-egoeraren hasieran esan zuten ile-apaindegiek lan egingo zutela, gero ezetz, geroago maiatzaren 4tik lanean hasi ahal zinetela...

Nahasmen handia egon da, eta informazio oso gutxi iritsi zaigu administratibotik. Faseak iragarrituztutenean esan zuten 0 fasean, maiatzaren 4tik aurrera, lanean hasteko aukera genuela, baina erabakia ez zen Aldizkari Ofizialean agertzen. Urduri egon gara.

**3** Hortaz, informazio falta izan al duzue?

Guretzat ezustekoa izan zen maiatzaren 4tik zabaldu genezakeela jakitea. Informazio falta egon da, baina hori ahaztuta, martxan gaude, gogotsu. Eta bezeroak ere gogotsu daude, eta beharrez.

**4** Ile-apaindegia itxita izan duzunean bezeroek hots egin al dizute aholku eske?

Konfinamenduan zehar bezeroek deitzen ninduten galdetzeko ea etxean ilea nola tindatu behar zuten, eta nik txantxetan esaten nien: "baina asko ez ikasi, e? Gero niregana etorri!" (kar, kar...) Eta zerrendan sartzeko eskatzen zidaten; ile-apaindegia zabaldu baino lehen 70 pertsona nituen zerrendan sartzeko.

#### 5 Nola antolatu duzu lana?

Maiatzaren 7an ireki nuen. Aurreko astean 0 fasean geunden, eta soilik ile-apaintzaile batek zabaldu ahal zuen, eta bakarrik bezero bat egon zitekeen barruan. Hortaz nik bakarrik zabaldu nuen. Aste honetan 1. fasean gaude, eta ni eta Naroa, nirekin lan egiten duen ile-apaintzailea elkarrekin ari gara, bakoitza bezero batekin eta lauren arteko distantzia mantenduz. Lan dezente dugu eta ari gara, baina ordu asko sartzen.

#### 6 Tindatu, ilea moztu eta orraztu. Zenbat denbora behar du horrek?

Tindatu, moztu eta orraztu ordu eta erdiko lana da. Baina tinteaz gain metxak egin behar badira, bota beste ordu bat, bi ordu eta erdi. Konplexua da, bezero batekin bukatu arte ezin duzulako bestea sartu, baina hor gaude, poliki lana ateratzen.

#### 7 Zein aldaketa egin behar izan dituzue ile-apaindegian?

Garrantzitsuen gure arteko distantzia mantentzea da. Naroa eta biak bakoitza bezero batekin ari gara lanean, eta orrazkera egin diegun bezeroak ateratzerakoan sartu behar dira besteak. Gaintzekoan, eskularruak erabili behar ditugu, maskarak, gel hidroalkoholikoa... beste tokietan bezala. Pantailak ere baditugu, eta

maskarekin tartekatzen ditugu. Ilea mozteko orduan pantaila ez da eroso, ez duzu zehaztasunez ikusten; hortaz, ilea mozteko beti maskarekin egiten dugu. Bestalde, bezero batekin bukatzerakoan dena desinfektatu behar da: eserita egon den aulkia, orraziak, guraizeak, batak, toallak...

#### 8 Txandak ematerakoan zein baldintza izan dituzu kontuan?

Zerrendakoei lehenetsuna eman diet, baita adinduei eta astero etortzen zaizkidan bezeroei ere.

#### 9 Bezeroak gustura bueltatu dira?

Etortzeko gogo handia zuten, baina ezin diezu ez musurik ez besarkadarik eman, eta egoera berriari ohitzen ari gatzazkio. "Begira zer ile ditudan" esanez sartzen dira, eta poz-pozik ateratzen dira. Itxura oso garrantzitsua da. Orrazterakoan ispilutik begiratzen diezu eta ikusten duzu nola joaten zaien begirada ere aldatzen, zelako poztasuna hartzen duten euren itxura hobetzen dela ikustean. Gure burua ongi ikustea oso garrantzitsua da.

#### 10 Tarte honetan zer izan da gogorrena zuretzat?

Jendearekin ez egotea. Bezeroekin harreman handia izaten dugu, eurak politak egotea eta ondo sentiaraztea da gure lana; giro ona izaten dugu ile-apaindegian. Momentu horiek bota ditut faltan.

#### 11 Egoera honetatik irakaspenen bat atera daiteke?

Gauza txikiak, sinpleak, izan dira gehien faltan bota ditugunak, eta balioan jarri behar ditugu. Egoera gogorra izan da, baina ziur aski gauza asko ikasiko ditugu.

**Murgildu gure ideien munduan**  
**Behar duzun hori Gk-n aurkituko duzu**

**gk**

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA  
 618 640 056  
 gk@gkomunikazioa.eus  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu